



Xabier Isasi
Gaindegiako lehendakaria

GAINDEGIaren sorreratik bertatik Euskal Herria zertan den azaltzea izan da gure xedea eta iparorratza. Euskal Herria zertan den, propio esaten dugu, bera definitzen duten datu, adierazle eta gai esanguratsuak zeintzuk diren jakitea, alegia. Informazio eta komunikazioaren jendartean bizi gara. Gero eta informazio gehiago dago edozeinen esku. Hori, berez, ona da, *klik* batean berehala eta ia edozein gairi buruzko informazioa aurki dezakegu. GAINDEGIak, hain zuzen ere, Euskal Herriari buruzko informazioa biltzeari lotu zitzaionetik informazio asko dagoela ikusi ahal izan du.

Apurka-apurka milaka datu, indize eta adierazle batu ditugu. Lan hori beharrezkoa da. Dagoeneko, GAINDEGIa, Euskal Herriari dagokionez, ekonomia eta jendarteari buruzko datu eta informazio gehien biltzen duen erakundeetako bat da. Baina gure helburua ez zen, soilik, datu eta informazio biltegia izatea. Izaera estatistikozko informazioak ez du deus ere balio ustiatu eta erabili gabe. Argitalpen honen bitartez, hain zuzen ere, egindako lanen zati bat ipini nahi izan dugu ekonomia eta jendarteko eragileen esku.

Behar izan eta aipatu arrazoi horiek eraman gaituzte lan hau argitaratzera. Txostena sei atal nagusitan banatu dugu: Euskal Herria

2007 adierazleetan, Zifratan gakoa, Adituen analisiak, Urteko ikerketak, Prentsan jasotakoa eta Eragile sozio-ekonomikoen oinarritzko gida. Bi irizpide adierazgarri gidatu dute gure lana. Aurrenik eta behin, gaur eguneko Euskal Herriari buruzko informazio garrantzitsuena eta osotuena plazaratzea. Eta, aurrekoarekin batera, erabilgarritasuna. Informazio erabilgarri eta eskuragarria eskaintzea, modu eroso eta atseginean. Irizpide horiei lotu gaitzaizkie; zuok, eragileok, adieraziko diguzue asmatu dugun ala ez.

GAINDEGIak, bere aldetik, hiru ondorio aipagarri atera ditu lan hau egiterakoan. Aurrena, lehendik genekiena, Euskal Herri osoaren gaineko informazio oso gutxi dagoela. Bigarrena, desberdintasunak desberdintasun Euskal Herriko lurraldeen artean gehiago direla elementu eta ezaugarri komunak diferentziak baino. Hirugarren ondorioak aurrekoari darrario, ekonomia eta jendarteari buruz jasotako informazioaren arabera lurraldeen arteko loturak areagotzeko joerak badaudela.

Kohesio adierazle horiek sakonago eta zabalago aztertu behar dira, jakina. Horretan gabiltza. Bien bitartean, adiskideak, argitalpen hau interesgarria eta, batez ere, erabilgarria gerta dakizuen nahi genuke.